

Bibliohondartza kokatuko dute Bakioko itsas pasealekuan

Bakioko liburutegiko zenbait liburu eta aldizkari hondartza ingurura hurbilduko dira.

L. URIA. BAKIO. Bihartik hasita eta abuztuaren 14ra bitartean, beste urte batez bibliohondartza izenez ezagutzen den hondartza-liburutegia jarriko dute Bakioko itsas pasealekuan. Astelehenetik ostiralera egongo da zabalik, goizez 11:00etatik 14:30era eta arratsaldeaz 17:00etatik 19:30era. Bakioko hondartzan liburuak mailegatzeko zerbitzu honek irakurketa hondartza ingurura eramateko helburua du. Zerbitzua 2007ko udan jarri zen abian, arrakasta handia lortuz.

Hondartza liburutegiak ume eta helduentzako ia 300 liburuko bilduma dauka, batez ere euskarazkoak. Besteak beste, ipuinak, genero guztietako eleberriak, dibulgazio-aldizkariak edo kostaldeari eta itsas inguruneari buruzko liburuak daude bertan. Arratsaldeetan, egunkaria ere kontsultatu daiteke bibliohondartzako moduluan. Liburuak 15 egunerako mailegatzen dira gehienez. Horretarako, Bakioko liburutegiko agiria, Ona txartela, Izenpe txartela edota Euskadiko Liburutegi Sareko edo sare horretako edozein liburutegitako erabiltzailea izatea eskatzen da.

Ostegunetan zenbait tailer egingo dira bertan: Kamishibai, jatorri japoniarreko ipuinak kontatzeko estiloa edo ipuin-kontalari tradizionalaren artea, besteak beste.